



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN

2016. URTERAKO AURREKONTU

OROKORREN LEGE-AURREPROIEKTUAREN

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN

TXOSTENA



1. Sarrera.....	3. or.
a. Egoera ekonomikoa eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromisoa.....	3. or.
b. Arau-esparrua eta arauaren proiektuaren deskribapen orokorra	4. or.
2. Generoaren Ikuspegiko Aurrekontu (GIA) publikoak.....	8. or.
a. Lege-esparrua.....	8. or.
b. Kontzeptu-esparrua.....	9. or.
c. 2015ean aurrekontuetan genero-ikuspegia sartzeko asmoz egin diren jarduketaren deskribapena.	10
3. Euskal Autonomia Erkidegoko emakume eta gizonen egoera.	13. or.
4. Euskal Autonomia Erkidegoaren zerbitzura dauden langileak.....	27. or.
5. Aurrekontu programen azterketa.....	34. or.
Egokitasuna.	34. or.
Garrantzia	41. or.
6. Generoaren eragina eta emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak.....	49. or.
a. Berdintasunaren aldeko berariazko politikak.	50. or.
7. 1. eranskina: Arau teknikoen plantilla.....	92. or.



1. SARRERA.

a. Egoera ekonomikoa eta emakume eta gizonen berdintasunerako konpromisoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2016rako aurrekontu orokorrak testuinguru ekonomiko itxaropentsuan egin dira. Aurreikuspenen arabera, munduan hazkunde ekonomikoa egongo da, hain zuzen, 2014koa eta 2015ekoa baino zertxobait handiagoa.

Gure inguru hurbilari dagokionez, Euroguneko jarduera ekonomikoa hobetu egingo da diru-politika espantsiboagoa jarriko delako abian eta petrolio gordinaren prezioa murriztuko delako. Testuinguru horretan aurreikusten da Espainiako ekonomikoak 2016an Europako batez bestekoaren gainetik gora egitea.

Inguruko egoerak hobera egin duen arren, oraindik ere zalantzak ez dira desagertu. Hala, garatzeko bidean dauden herrialdeetan, zenbait egoera oso zailak izanik, okerrera egin dezakete Estatu Batuetako normalizazio monetarioaren ondorioz. Eurogunea ere ez dago arriskuetatik kanpo; esaterako, Greziako krisi finantzarioaren eta ekonomia garatuen inflazio-maila baxuen ondoriozko arriskuetatik edota oraindik ere dauden arrisku geopolitikoetatik.

Nazioarteko testuinguru horrek euskal ekonomiarako hazkunde makroekonomikoaren egoerara garamatza, nahiz eta beheranzko joera izan. Barne Produktu Gordina 2015ean eta 2016an % 2,5 haztea aurreikusten da, eta enplegu-mailak gora egitea, 2015ean % 1,6 eta 2016an % 1,7 (enplegua lanaldi osoko lanpostutan neurtuta, eta urteko batez bestekoa kontuan hartuta).

Bestalde, aurrekontu-egonkortasunari buruzko Europako erregulazio-esparru horrek administrazio publiko guztien aurrekontuak baldintzatzen ditu, derrigor bete beharreko hiru eskakizun baitituzte defizitari, zor publikoari eta gastu-arauari dagokionez. Euskadiren kasuan, indarrean dagoen akordioan jasotako ibilbideak BPGren % 0,3ko defizit helburua aurreikusten du 2016rako.



Egoera ekonomiko hori izanik, Eusko Jaurlaritzarentzat berebiziko garrantzia du berdintasunaren arloan aurrerapausoak ematea, eta erdietsitako lorpenak finkatzeko eta berdintasunaren arloan aurrerapauso berria bultzatzeko konpromisoa du. Horretarako, Euskadi Nazio Batuek ezarritako genero-berdintasunaren indizearen mundu herrialdeetatik lehena izateko helburua berrezarri du.

Hala, aurrekontu publikoak tresna nagusiak dira politika publiko guztietan generoaren ikuspegia sartzen; izan ere, horietan ezartzen dira aurrekontuen politika zehazten duten lehentasunak eta baloreak. Berdintasuna eta generoa aintzat hartzen duten aurrekontuak prozesu berberaren baitan daude, alde batetik, politika publikoak generoarekiko neutroak ez direla aditzera ematen dutelako, eta, bestetik, emakume eta gizonen desberdintasunak murriztu edo desagerraraz daitezkeelako.

Ogasun eta Finantza Sailak berdintasunarekin duen konpromisoa ikusarazi eta jauzi kualitatiboa eman nahi du, genero-ikuspegia duten aurrekontuen eredu iraunkorretarantz aurrerapausoak emateko. Hala, adierazitakoa betetzen dela bermatzeko, Gobernu Kontseiluan onesteko proposatuko du genero-ikuspegia aurrekontu-jarduera osoan sartzea ahalbidetuko duen proiektua abiaraztea, txosten honetan adierazten diren baldintzei jarraikiz.

b. Arau-esparrua eta arauaren proiektuaren deskribapen orokorra

Ogasun eta Finantza sailburuak hala proposatuta, Agiri hau Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko **4/2005 Legearen 18-20 artikuluetan** xedatutakoa betez egin da eta, bereziki, 19. artikuluan xedatutakoa betez, honakoa baitio: "Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean".



Gainera, 4/2005 Legeak honakoa dio **18.1 artikuluan**: "Arauk garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-aginteeek modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua".

Beste alde batetik, aurrekontuak egiteari dagokionez, honakoa dio Berdintasunerako 4/2005 Legearen **14. artikulua**: "Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan".

Proiektuarekin loturiko beste arau batzuk:

- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duena.
- 8/1996 Legea, azaroaren 8koa, Euskal Autonomi Elkarteko Finantzena
- 6/2011 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.
- 14/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomi Elkarteko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa.
- Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia.
- 1/1988 Legea, otsailaren 5ekoa, "Tribunal Vasco de Cuentas Públicas" / "Herri-Kontuen Euskal Epaitegiarena".
- Otsailaren 25eko 2/2004 Legea, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa:
- 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.
- 209/2006 Dekretua, urriaren 17koa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen gehigarritzko ordainsari-osagarriari buruzkoa.
- 94/2008 Dekretua, maiatzaren 20koa, Euskal Herriko Unibertsitateari egin beharreko ekarpen arrunta zehazteko irizpideak ezartzen dituena.
- 13/2012 Legea, ekainaren 28koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoa.
- 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzkoa.
- 2/2007 Legea, martxoaren 23koa, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa, bai eta, bertako Azken Xedapena



- baliatuz, hurrengo ekitaldietan ere, ez bada hurrengo ekitaldietarako metodologia onartzen duen lege berririk sortu.
- Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege Proiektua 2015erako.
 - 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa; irailaren 28ko 4/2012 Lege Organikoaren bitartez aldatu zen.
 - 5/1982 Legea, maiatzaren 20koa, Euskal Irrati Telebista erakunde publikoa sortzeari buruzkoa.
 - 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.
 - 3/2007 Legea, apirilaren 20koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute Sortzeko eta Arautzekoa, eta 88/2008 Dekretua, maiatzaren 13koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Instituteraren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duena.
 - 9/2007 Legea, ekainaren 29koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzekoa; 159/2011 Dekretua, uztailaren 12koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren egitura eta antolaketari buruzkoa, eta 160/2011 Dekretua, uztailaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren baliabide pertsonalak eta materialak Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari atxikitzeko baldintzak arautzen dituen.
 - 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa, eta 139/2012 Dekretua, uztailaren 17koa; horren bidez, Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduera noiz hasiko den zehazten da eta Euskal Autonomia Erkidegoaren giza baliabideak erakunde autonomo horri atxikitzeko baldintzak arautzen dira.
 - 5/2008 Legea, ekainaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena.
 - 3/2011 Legea, urriaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzkoa; eta 82/2012 Dekretua, maiatzaren 22koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak onartzen dituen.
 - 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
 - 7/2007 Legea, apirilaren 2koa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena.
 - 14/1988 Legea, urriaren 28koa, Goren-kargudunen lantsariei buruzkoa.
 - 130/1999 Dekretua, otsailaren 23koa, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldekieen estatutu pertsonala arautzeko dena.
 - 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskal Herriko Poliziari buruzkoa.
 - 15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa.
 - 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzakoa.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bategina, irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia.
 - Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa.
 - 136/1996 Dekretua, ekainaren 5koa, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren kontratazio araubideari buruzkoa.
 - 8/2008 Legea, ekainaren 25koa, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea eta Gizarte Eskubideen Agiriaren Legea aldatzen duena.
 - 7/1993 Legea, abenduaren 21koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzekoa.
 - 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.
 - 13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familiei laguntzekoa.



- 177/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa.
- 2013/1 Legea, urriaren 10ekoa, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzkoa.
- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena
- 4/2015 Legea, otsailaren 4koa, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa.
- Gobernu Kontseiluak onetsitako jarraibide ekonomikoak (2013ko ekainaren 11ko erabakia) eta Ogasun eta Finantza Sailak onetsitako jarraibide teknikoak, Gobernu Kontseiluak sailei jakinarazitakoak.
- Konstituzio Auzitegiaren doktrina aurrekontu orokorren legeei buruz.
- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren doktrina Euskadiko aurrekontu orokorren legeei buruz.

Arauek ezartzen badu ere arauaren sustatzaileak izan behar duela genero-inpaktuaren txostena egin behar duen organoa, kasu honetan, eta kontuan hartuta lege-aurreproiektu honek zeharkako izaera duela, beharrezkotzat jo da Ogasun eta Finantza Saileko berdintasun-unitateak egitea eta koordinatzea prozesu hau, Aurrekontuen Zuzendaritzarekin eta horien mendeko gainerako sail eta erakunde autonomoekin lankidetzan estuan.

Gauzak horrela, nabarmendu behar da txosten hau administrazio honetako pertsona askoren lanaren emaitza dela, bereziki, Eusko Jaurlaritzako sailen berdintasun teknikariena, eta han justu Ogasun eta Finantza Sailak horiei eman nahi dizkie eskerrak, pertsonalki, egindako ahaleginagatik.

2. GENERO IKUSPEGIKO AURREKONTU (GIA) PUBLIKOAK

a. Lege-esparrua

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa.	Euskal administrazioetarako ezartzen du berdintasun-politikak jorratzeko berariazko aurrekontu esleipenak kontsignatzeko betebeharra. 14. artikulua. Xedapen Orokorra "Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan".
EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Plana	G9 Gobernantza-neurria Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea. - G9.1. Berdintasunerako berariazko aurrekontuen bidez administrazio publikoen kopurua handitzea. - G9.2 Aurrekontuak berdintasunean duen eraginaren aurretiko balorazioa egiten duten administrazio publikoen kopurua handitzea. - G9.3 Genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko jarduerak egiten ari diren administrazio publikoen kopurua handitzea.
Europako Parlamentua	Nazioartean, bai Nazio Batuek bai Europako Parlamentuak emakume eta gizonen artean baliabideen banaketa ekitatiboa bultzatzea xede duten zenbait gomendio eta ebazpen ezarri ditu. Europako Batasuneko 2002/2198/INI Ebazpena nabarmendu du, Europako Batzordeari, estatu kideei eta tokiko gobernuei eskatzen diena "generoa aintzat hartzen duten aurrekontuak" aplikatzen. 2015eko ekainean, Europako Parlamentuak instrukzioa igorri du aurrekontu-politikaren prozesu osoan genero-ikuspuntua diseinuan, exekuzioan, jarraipenean eta ebalazioan sartzeko eskatzeko.
Europar Kontseilua	Belgika Europako Kontseiluko presidentetzan egon bitartean 2001ean, 2015a ezarri zen asko jota EBko estatu kideen administrazio-maila guztietan generoaren arabera aurrekontuak sartzeko muga gisa. Erabaki hau Bruselan hartu zen, OCDEk antolatutako eta Europako Iparraldeko Kontseiluak eta UNIFEMek babestutako goi-mailako hitzaldi batean.



b. Kontzeptu-esparrua

Generoaren **mainstreaming**a da politika publikoetan emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko ikuspegi berriena. Ikuspegi horrek bere baitan ezartzen du genero-ikuspegiak pixkanakako estrategia izan behar duela, eta jarduteko hainbat eremutan hartutako erabaki publikoez beteriko prozesuaren fase guztiak barne hartu eta prozesuan esku hartzen duten maila, agente eta aktore guztiak inplikatu behar dituela.

Mainstreamingen inplementazioak esan nahi du politika publiko guztiek esparru ezberdinetan generoaren esparruan dauden ebaki guztiak murriztera, eta, aldi berean, emakumeen artean diskriminazio-egoerak dakartzaten ekintzak saihestera bideratuta egon behar dutela.

Hala, aurrekontua genero-ikuspegia politika publikoetan sartzeko tresna egokitzat aurkeztu da; izan ere, izaera horizontala duenez, ikuspegi honen zeharkakotasuna jarduketa guztien bermatzen da, hau da, aurrekontuaren prozesu guztia gauzatzean, exekuzioan eta ebaluazioan.

Nabarmendu behar da genero-ikuspegia duten aurrekontuak aztertzeak ez duela esan nahi emakume eta gizonentzat aurrekontu bereizia egin behar denik, eta helburua ez dela gastu publikoa areagotzea edota berdintasuna sustatzea xede duten politikak aztertzea. Azken batean, helburua da emakume eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko helburuarekin arduratsuak izatea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kasuan, aurrekontuak sail eta erakunde autonomoen helburuak nahiz gastu publikoaren helburua eta gastuen jatorria jasotzen du. Hala, GIAren helburu nagusia da sail bakoitzean egiten den guztiak eta gastatzen diren euro guztiek emakumeen gainean eragina dutela eta eragin hori emakume eta gizonentzat sarritan ezberdina den kontzientzia eraikitzea (Sharp, Rhonda eta Broomhill, Ray 2002). Hala, GIAren helburu nagusia da aurrekontuetan dagoen "generoaren itsutasuna" gainditzea, hau da, politika publikoak generoarekiko "neutroak" diren ideia suntsitzea. Horretarako, beharrezkoa da berdintasuna bultzatzea xede duten politikak nahiz politikaren jarduketa osoa oro har aztertzea.



GIaren beste helburu bat da jarduketa publikoaren efikazia eta eraginkortasuna nahiz gardentasuna sustatzea. Horrek esan nahi du jarduketa publikoak gizartean izan behar duela proiektzioa, hau da, administrazioak eginiko lanaren berri eman behar zaio gizarteari, batez ere honako hauen berri: baliabideekin zer egiten ari diren, norentzat diren onuragarriak eta nor ari diren alde batera uzten.

Azkenik, azterketa hori egitean, komeniko litzateke aurrekontuak eta politika publikoak berrikustea eta berrantolatzea, berdintasuna lortzeko aurrerapausoetan eragin kaltegarria duten partidak eta jarduketak berregituratze aldera.

c. 2015ean aurrekontuetan genero-ikuspegia sartzeko asmoz egin diren jarduketaren deskribapena.

Azken urteotan egin diren aurrekontuen lege-aurreproiektuen gainean generoak duen eraginari buruzko txostenen azterketaren bidez eta azterketa horiek egiteko prozesuetan lortutako esperientziaren bidez, zenbait gabezia eta hobetzeko beharrian detektatu ahal izan ditugu. Hala, orain arte emandako ikuspegia eta egindakoa analisisa birformulatu da.

Gauzak horrela, txosten hau hausnarketarako alderdia da orain arte aurrekontuen gainean egin izan den analisisan, eta aurrekontu-prozesuan *mainstreaming*a inplementatzeko etapa berriaren hasiera dakar.

Ondore horietarako, eta genero-ikuspegia aurrekontuaren jardura osoan integratzeko martxan jarritako prozesuaren parte gisa, orain arte eginiko jarduketa nagusiak deskribatzen dira:

1. Txosten honen sarreran adierazten den bezala, borondate politikoa emateko, eta, nolabait, garrantzi handiko prozesu hau blindatzeko, Gobernu Kontseiluak eginiko akordio-proposamenaren berri eman da. Horren bidez abiaraziko da genero-ikuspegia aurrekontuaren jardura osoan integratzea ahalbidetuko duen prozesua. Horrek ahalbidetu egingo du Ogasun eta Finantza Sailak bultzatutako prozesu integrala martxan jartzea, Eusko Jaurlaritzako gainerako sailekin eta Emakunderekin koordinatuta, genero-ikuspegia duten aurrekontuak aztertzeko. Xede horretarako, dagoeneko zenbait jarduketa egin dira, jarraian jasotzen den bezala.

2. Politika publiko guzti-guztien "itsutasuna" jakinarazi eta ikusarazi da. Aurreko urteetan eginiko lanak berdintasunean aurrerapausoak ematea lehentasunezko helburu zuten politikak besterik ez zituen aztertzen, eta gainerako politiken izaera "neutroa" alde batera uzten zuen.

3. Aurrekontuek emakume eta gizonen baliabide ekonomikoen banaketa ekitatiboari mesede egiten ez dioten aurrekontuak jakinarazi eta ikusarazi dira. Egiazki, gizonekin alderatuta, administrazio publikoen transferentzia arrunten gastuaren hartzaile zuzen gutxi dago emakumeen artean. Emakundek Eusko Jaurlaritzako sail batzuekin batera eginiko hainbat ekimenen bidez frogatu da. Horien bidez, sailtako hainbat programak genero-ikuspegiaren arabera duten aurrekontua aztertu da.

4. Hainbat sailtako sektoreko esparruan sexuaren arabera banatutako datuak, estatistikak eta azterlanak izateko beharra dagoela jakinarazi eta ikusarazi da. Oro har, detektatuta da aurrekontu-programen arduradun diren administrazio langileak berdintasunaren gainean trebatu behar direla, baita programak egiten eta garatzen lan egiten duten gainerako langileak ere.

5. GIAei buruzko prozesuak ezarri dituzten beste administrazio batzuen ekimenak aztertu dira, bereziki, Andaluziako Juntarena eta Gipuzkoako Foru Aldundiarena.

6. Euskal Autonomia Erkidegoko azken urteotako aurrekontu orokorren legearen aurreproiektuan generoak duen eraginari buruzko txostena aztertu da, eta hobetzeko zenbait alderdi eta beharrian berriak detektatu dira.

7. Lankidetzeta eta koordinaziorako prozesua martxan jarri da Eusko Jaurlaritzaren sail guztiekin nahiz bere mendeko erakunde autonomoekin eta Emakunderekin.

8. Lehen aldiz, 2016ko aurrekontuen arau ekonomikoek berdintasunari buruzko aipamena jasotzen dute gobernu honen elementu estrategiko eta zeharkako gisa.



9. Lehen aldiz jaso da 2016ko aurrekontuen arau teknikoetan aurrekontuen programetan generoaren arabera ikuspuntuari buruz eginiko analisiaren formularioa. Hala, programa bakoitzean generoaren egokitasuna eta garrantzia jaso da, baita horietako bakoitzean berdintasunaren alde ezarritako helburuak eta jarduketak ere. Formulario hori dokumentu honen amaieran jaso da 1. eranskin gisa.

10. Laneko hainbat bilera eta saio egin dira berdintasun teknikariekin, Emakunderekin eta generoaren esparruan adituak diren UPV/EHUko ekonomialariek.

11. Sail eta erakunde autonomo guztiek ikusi dute egokiak direla nork bere esparruan ezarritako programa guztiak. Azpimarratu behar da ekitaldi honetan gutxienez lortu beharreko helburu gisa ezarri dugula aurrekontu-programa guztien egokitasuna kalkulatzeko. Ikusi analisi xehatua txosten honen 5.a atalean.

12. Sail guztiek detektatu dute gutxienez aurrekontu-programa bat gailentzen dela. Ikusi analisisia txosten honen 5.b atalean.

**3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EMAKUME ETA GIZONEN EGOERA****AURKIBIDEA**

1. DEMOGRAFIA-AZTERKETA	14
2. BALIABIDE EKONOMIKOETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA	16
3. GIZARTE-BALIABIDEETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA	21
4. PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA.....	23
5. ANTOLAKUNTZA SOZIAL ERANTZUKIDEA	25
6. INDARKERIA	26



DEMOGRAFIA-AZTERKETA

2013an, EAEn 1.122.936 emakume bizi dira, alegia, guztizko populazioaren % 51,2 (2.191.682).

Betiere oreka erlatiboko balioen barruan, gizon gehiago daude pertsona gazteen artean (0tik 50era urte bitartean % 50 baino pixka bat gehiago), eta egoera hori irauli egiten da adinak gora egiten duen heinean: 50etik 65era urte bitartean, emakumeak arinki nagusitzen dira populazioaren guztizkoan, eta gora egiten jarraitzen du 90 urte edo gehiago dituzten pertsonen artean, % 75etik gora izateraino.

2012an, guztira 20.533 jaiotza izan dira, alegia, 622 jaiotza gutxiago aurreko urtean baino (2011n baino ia % 3 gutxiago). 2012an ama izan diren hamar emakumetik lauk 40 urte edo gehiago dituzte, eta amatasunaren batez besteko adinak hamartar bat egin du gora (32,6).


Ezkontza-tasek jaisten jarraitu dute 2012an (3,5 izan da, eta 2011n 3,7), eta ezkondu diren pertsonen adinak igotzen jarraitu du, bai emakumeengan (34 urte, batez bestez) eta bai gizonengan (36,3).

Banaketa eta dibortzioak, nagusiki, alde bien adostasunez egin dira: banaketen % 75,2 eta dibortzioen % 70,7.

2012an, 19.125 pertsona hil dira EAEn eta, horietatik, % 48,5 emakumeak dira. Hilkortasun-tasa gordina (heriotzak mila biztanleko) 9,1 da.

DEMOGRAFIA-AZTERKETA

POBLACIÓN TOTAL:
2.191.682



Bizi-itxaropena	
K	EMAKUMEA
	86,4 URTE
	GIZONAK
	79,9 URTE
k	Emakumea
	Guztizkoar en gaineko %-a
	> 70
	% 59,9
	> 80
	% 65,4

NATALIDAD

2012 Total de Nacimientos **20.533 (reducción -2,9% respecto a 2011)**
 1/3 de nacimientos
 madres de 35-39 años

Edad media de maternidad: 32,6
 Cuatro de cada diez mujeres son madres con 40 y más años
 El 35,9% de las mujeres no estaban casadas

MORTALIDAD

2012 Total de Defunciones **19.125 (48,5% mujeres)**

La tasa bruta de mortalidad (defunciones x 1.000 habitantes) desciende ligeramente: 9,1



BALIABIDE EKONOMIKOETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA

EAEko emakumeen eta gizonen jarduera-tasak gora egin du 2013an. Emakumeen kasuan, azken hamarkadetan gertatu den hazkunde motelarekin jarraitzen da; gizonen kasuan, berriz, iraganean erregistratutako balio altuagoetara hurbildu da. Nolanahi ere, 12,4 puntuko diferentzia erregistratzen da emakumeen eta gizonen artean, eta diferentzia hori aurreko urtekoa baino pixka bat handiagoa da.

Adinak posizionamendu desberdina ezartzen du lan-munduan, eta hori emakume nahiz gizonengan ikus daiteke; jarduera-tasa maximoak 25 urtetik 44 urtera bitartean daude. Nolanahi ere, 45 urtetik aurrera, nabarmen handitzen dira gizonen aldeko diferentziak (ia 16 ehuneko-puntu 2013an). Adin-tarte horretan, orobat gazteenen kasuan, diferentziek arinki gora egin dute 2013an, eta murrizketa txiki bat hauteman da 25 urtetik 44 urtera bitarteko tartean.

Ikasketa-mailak gora egiteak orekatu egiten du emakumeen eta gizonen jarduera-tasa, eta ikus daiteke horrek berdin gora egiten duela seme-alaben kopurua handitzen denean, bai gizonen kasuan eta bai emakumeen kasuan.

Emakume eta gizonen okupazio-tasari dagokionez, distantzia 10 ehuneko-puntu murriztu da 2013an (% 43,6 emakumeentzako eta % 53,6 gizonentzako), eta biak arinki murriztu dira aurreko urtearekiko.

Ikasketa-mailak korrelazio positiboa agertzen du jarduera-tasaren antzeko okupazio-tasa erregistratuarekin, eta goi-mailako ikasketak dituzten emakumeek gizonen baino arinki egoera hobea agertzen dute. Posizio hori nabarmen negatiboagoa da ikasketa-mailak baxuagoak direnean.

35 urtetik beherako adinetan, okupazio-tasak orekatuta daude, baina, adin horretatik aurrera, gizonen okupazio-tasa nabarmen handiagoak aurkezten dituzte.



2013an, EAEn gizonen langabezia-tasa emakumeena baino pixka bat handiagoa izan da, krisiak hein handiagoan eragin dielako nagusiki gizonak lan egiten zuten sektore eta okupazioei.


Azken urte honetan ez da aldaketa esanguratsurik gertatu lanaldi murriztuetan, eta emakumeek gehiago izaten jarraitzen dute (% 80,1); halaber, emakumeek presentzia txikiagoa dute lanaldi osoko lanetan (% 40). Ikus daiteke emakumeen egoerak arinki hobera egin duela kopurutan (23.531) eta proportzioan (% 52,8) 2013an erregistratutako kontratu mugagabeetan, eta urtean egindako aldi baterako kontratuen % 51,2 ere emakumeenak izan ziren.

Arinki egin du gora emakumeen enplegu-kontzentrazioak zerbitzuen sektorean (hamar emakumetik ia bederatzi sektore horretan ari dira lanean), eta nabarmentzekoa da gizonen enplegu industrialaren ehunekoak gora egin izana.


Emakume eta gizonen enplegatzaile gisa duten egoerari dagokionez, azpimarratzekoa da emakumeen partaidetzak 3 hamartar egin duela gora 2013an Gizarte Segurantzaren pertsona autonomo gisa afiliatutako kopuruan; guztizkoaren % 35,6 dira. Emakumeak kategoria bakarrean dira gehiengo arlo horretan, alegia, Familia laguntzan (% 60,6).

LAN PRODUKTIBOA


Evolución Tasa Actividad




Tasa de actividad por edad 2013




Tasa de actividad por estudios 2013




Tasa de Actividad según nº de hijas e hijos




Tasa de ocupación según estudios




Tasa de ocupación por edad







Contratos registrados indefinidos 2013
Total: 44.594




Contratos registrados temporales 2013
Total: 634.352




Biztanleria okupatua sektoreka, 2013



Emprendizaje 2013



Personas autónomas afiliadas a la Seguridad Social 2012





GIZARTE-BALIABIDEETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA


2013an, hezkuntza-sistemako lehen etapetan neska-mutilen partaidetza-oreka mantendu egiten da, baita mutilen nagusitasuna ere Lanbide Heziketan (% 60 inguru edo gehiago) eta nesken presentzia handiagoa Goi mailako Ikasketetan edo Batxilergoan (% 53,2 eta % 52, hurrenez hurren). Aurtengo aldaketa deigarriena Helduen Hezkuntzaren esparruan gertatu da: lehen emakume gehiago ziren; orain, berriz, orekatuta dago.

Goi mailako ikaskuntza-etapetan ikus daitekeen segregazioak lagundu egiten du lan-munduan ikusten den segregazioa mantentzen: arlo batzuetan emakumeen nagusitasun argia dago (% 70 baino gehiago dira Osasun Zientzietan edota % 60tik gora, Arte eta Humanitateetan eta Gizarte Zientzietan); gizonak, berriz, % 70etik gora dira Ingeniaritza eta Arkitekturan, eta % 90etik gora Lanbide Heziketako zenbait titulutan, hala nola Elektrizitate eta Elektronikan; Fabrikazio Mekaniko eta Ibilgailuen Mantenuan eta abarretan.


Beste iturri batzuetatik errenta-maila baxuagoak jasotzeaz gainera, gizonen eta emakumeen arteko soldata-diferentziak bide ematen dio emakumeak hein handiagoan gizarte-desabantailako egoeran egoteari, gaur egun (soldata baxuagoak jasotzeagatik) eta etorkizunean (erretiratutakoan pentsio baxuagoak jasoko dituztelako). 2012ko azken datuen arabera, gizonen kasuan, orduko batez besteko irabazien eboluzioak joera positiboa agertzen du 2009az geroztik, eta emakumeen kasuan, oraindik ez du 2010ean lortutako maila berreskuratu.

Emakumeak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen zuten pertsonen guztizkoaren % 59 izan ziren 2013an.

HEZKUNTZA




Alumnado matriculado en la universidad en estudios de grado y 1º y 2º ciclo por rama de conocimiento según sexo




ERRENTA

Evolución ganancia media por hora trabajada



Personas perceptoras RGI 2013





PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA

Emakumeek instituzio publikoetan duten partaidetzak bilakaera positiboa agertu du EAEn, eta, aurreko edizioetan adierazi dugun bezala, VIII. legealdiaz geroztik, emakume eta gizonen partaidetza orekatua dago Eusko Legebiltzarrean.


Eusko Jaurlaritzan, emakumeak Sailen erdien buru dira, nahiz eta Sailburuordetzak eta Idazkaritza Nagusiak kasuen % 31n baino ez dituzten zuzentzen.

Udal esparru politikoan, emakume zinegotzien pisuak gora egin duen arren orekatik gertu kokatzera arte (ez berdintasuna), alkatetzen kasuan emakumeen presentzia nabarmen baxuagoa da: EAEko 4 udalerritik 1ek baino gutxiagok du emakume bat alkatetzan, eta, gainera, biztanle gutxiagoko udalerriak izan ohi dira (EAEko biztanleria osoaren % 13 baino ez dira).


Zuzendaritza-mailetan eta instituzio ekonomiko eta sozialetan emakumeen partaidetza nabarmen txikiagoa izateak ez du agertzen murrizteko joera argirik. EAEn egoitza duten bi finantza-erakundetan bakarrik hauteman da hobekuntzaren bat, nahiz eta emakumeek % 25etik beherako proportzioan presentzia izaten jarraitzen duten erabaki-organo garrantzitsuenetan. EAEn egoitza duten IBEX35eko enpresen artean, aurrerapenak eta atzerapenak hautematen dira.

PARTAIDETZA / BOTEREA


Evolución presencia en el Parlamento Vasco



Mujeres en Alcaldías, % de municipios y de población



Consejos de Administración o Direcciones Generales.




ANTOLAKUNTZA SOZIAL ERANTZUKIDEA

2013an behatutako eboluzioa positiboa da, gizon gehiagok eskatzen baitute eszedentzia seme-alabak eta bestelako senideak zaintzeko, baina oso proportzio mugatuan; hala, emakumeak gehiengo itzela izaten jarraitzen dute bi kasuetan (% 94,6 eta % 82,5, hurrenez hurren); era berean, amatasun-prestazioetan ere nagusitzen dira (% 95,6), eta horietan ez da aldaketa positiborik gertatu.


Oraindik ere, emakume eta gizonen rol tradizionalak mantentzen dira denbora-erabileran. Hartara, gizonak denbora gehiago ematen dute lanean, prestakuntzan eta aisian; eta emakumeek denbora gehiago ematen dute etxeko lanetan eta etxeko pertsonen zaintzan.

LAN ERREPRODUKTIBOA


Prestaciones por maternidad de la persona perceptora por sexo. 2013. Total: 16.048




Excedencia por cuidado de hijos/as 2013. Total: 3.159



Excedencia por cuidado de familiares 2013. Total: 269



DENBORAREN ERABILERAK




INDARKERIA

2013an erregistratu diren genero-indarkeriaren biktima diren 4.982 emakumeetatik, biktimaren bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria izan da, kasu gehienetan (% 74,9).. Kasuen % 57,2an, erasotzaileek 31 urtetik 50 urtera bitartean zuten, eta % 26,1ak, 31 urte baino gutxiago.


Aurten, halaber, 839 babes-agindu erregistratu dira, 2012an baino 31 gehiago.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Agresores de violencia de género por edad. 2013



Victimizaciones de mujeres según tipo de violencia. 2013



4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ZERBITZURA DAUDEN LANGILEAK

1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA BERE ORGANISMO AUTONOMOETAKO LANGILEEN ETA GOI-KARGUDUNEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA.

1.2 Administrazio orokorreko kontseilaritza, sail eta organismo autonomoetako langileak, taldearen eta sexuaren arabera.

FUNTZIONARIOAK. Administrazio orokorreko kontseilaritza, sail eta organismo autonomoetako langileak. 2011

	A1		A2		C1		C2		E		GUZTIZ KOA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Karrerako funtzionarioak	510	410	192	180	217	337	263	1144	308	145	1490	2216
Bitarteko funtzionarioak	299	560	68	82	96	237	70	295	77	75	610	1249
GUZTIZKOA	809	970	260	262	313	574	333	1439	385	220	2100	3465

LAN-KONTRATUPEKO LANGILEAK. Administrazio orokorreko kontseilaritza, sail eta organismo autonomoetako langileak. 2011

	Goi-mailako tituluduna		Erdi-mailako tituluduna		Bestelako tituludunak		GUZTIZKOA	
	G	E	G	E	G	E	G	E
Lan-kontratupeko finkoak langile	115	121	45	63	221	236	381	420
Aldi baterako lan-kontratupeko langileak	43	146	14	42	120	169	177	357
Behin-behinekoak	5	11	0	1	3	7	8	19
GUZTIZKOA	163	278	59	106	344	412	566	796

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarrila



Ehunekoei dagokienez, Euskadiko Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden langileen % 61,52 emakumeak dira eta % 38,48 gizonak; horrek esan nahi du administrazioa gero eta feminizatuago dagoela.

Administrazioiko goi-mailetan (A1 eta A2) emakume baino gizon gehiagok lan egiten du, baina azken urteotan alde hori murriztu egin da. Bestalde, orokorrean emakumeen lan-arloko ezegonkortasuna administrazioan gizonena baino nabarmen handiagoa dela: lan-arloko ezegonkortasuna duten administrazioiko langileen (bitarteko funtzionarioak, eta aldi baterako eta behin-behineko kontratupekoak) ia % 70 emakumezkoak dira. Nabarmentzekoa da C2 taldean gero eta emakume gehiago daudela, emakumeen gehiegizko ordezkaritza % 81,20ra iristen baita.

2- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASLEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA.

2.1 Irakasleak, taldearen eta sexuaren arabera. haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, helduen hezkuntza, hezkuntza berezia

Irakasleak, taldearen eta sexuaren arabera.

Ematen dituzten mailak	Emakumeak		Gizonak		GUZTIZK OA
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.
GUZTIZKOA	26.617	72,89	9.899	27,11	36.516
Haur hezkuntza - lehen hezkuntza	15.717	85,50	2.666	14,50	18.383
Bigarren hezkuntza	9.356	59,14	6.463	40,86	15.819
Helduen hezkuntza	505	69,85	218	30,15	723
Irakaslanik gabea	1.039	65,30	512	34,70	1.591

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. 2011-2012.

Esan behar da unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza oso feminizatuta dagoela, batez ere lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan. Batez ere emakumezkoak dira alor honetan lanean dabilenak, irakaskuntza pribatuan zein irakaskuntza publikoan. Guztira 36.516 pertsona dabilen irakasle lanetan unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan, eta % 72,89

emakumezkoak dira. Emakumeen presentzia bereziki nabarmena da irakaskuntza-mota bitan, hau da, haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntzan batetik, eta hezkuntza berezian bestetik.

Gauzak horrela, aipatzekoa da haur-hezkuntza eta lehen hezkuntzaren eremua: bertako irakasleen % 14,50 baino ez dira gizonezkoak eta, ondorioz, ikasleek ia ez dute erreferentzia maskulinorik irakaskuntzaren maila horretan.

Lanbide-heziketari dagokionez, irakasle gehienak gizonezkoak izateak eragina du bai ikasleengan baita irakasleengan ere. Unibertsitate aurreko irakaskuntza osoan honetan bakarrik da gizonen presentzia emakumeena baino handiagoa, ehuneko oso adierazgarriekin, joera alderantzikatzen dela.

Erabaki-guneetarako sarbideari dagokionez, emakumeen presentzia oso handia denez sektorean, errazagoa da emakumeak ikastetxeetako zuzendaritza-lanpostuetan egotea, eta datuek diote banaketa orekatua dela. Hezkuntza Sailak hurrengo lau urteetarako ikastetxeetako zuzendaritza-lanpostuetarako egin dituen izendapenei buruzko azken datuen arabera (2009ko uztailekoak), 2009an egin ziren 174 izendapenetatik⁸³ (% 47,7) emakumezkoak dira eta 91 (% 52,3) gizonezkoak.

3- OSASUN-ERAKUNDEETAKO LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA.

3.1 Osasun-erakundeetako osasun-langileak, taldearen eta sexuaren arabera.

Osasun-erakundeetako funtzionarioak eta estatutupeko langileak, taldearen eta sexuaren arabera. 2011

	A1		A2		C1		C2		GUZTIZKOA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Estatutupeko langile finkoa / Karrerako funtzionarioa	2.208	2.272	519	5.350	67	642	111	2.730	2.805	8.994
Estatutupeko aldi baterako langilea	310	569	69	946	9	78	11	338	399	1.931
GUZTIZKOA	2.518	2.841	588	6.296	76	720	122	3.068	3.204	10.925

Osasun-erakundeetako lan-kontratupeko langileak, taldearen eta sexuaren arabera. 2011

	Goi-mailako		Goi-mailako		Bestelako		GUZTIZKOA	
	titulazioa		titulazioa		titulazioak			
	G	E	G	E	G	E	G	E
Lan-kontratupeko langile finkoak	200	93	60	816	70	658	330	1567
Aldi baterako lan-kontratupeko langileak	1	2	4	4	0	4	1	10
GUZTIZKOA	201	95	60	820	70	661	331	1577

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarila

EAEko osasun-langileen sexuaren arabera banaketa ez dago orekatuta, langileen % 77,86 emakumezkoak baitira. Emakumeen gehiegizko ordezkartza maila guztietan gertatzen da, A1 mailari dagokion kolektiboan izan ezik; izan ere, maila horretan parekotasun-printzipioa betetzen da. Emakumeek gehiegizko ordezkartza daukate, neurri handi batean, A2 taldeko partaidetza ez delako orekatua. A2 taldean erizaintzan diplomatutako langileak daude batez ere, eta lan-merkatu horretako langile gehienak emakumezkoak izatea azaltzen du horrek. Aipatzekoa da, baita ere C2 maila. Prestakuntza-maila txikiena eskatzen da bertara sartzeko eta, ondorioz, ordainsari-maila txikiena ere badu. Bertako langileen % 96 emakumezkoak dira eta, beraz, argi dago segregazio bertikal izugarria dagoela.

3.2 Osasun-erakundeetako langile ez-sanitarioak, taldearen eta sexuaren arabera. Kudeaketa eta zerbitzuetako langileak.

Osasun-erakundeetako langile ez-sanitarioak, funtzionarioak eta estatutupeko langileak. 2011

	A1		A2		C1		C2		E		GUZTIZKOA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Estatutupeko langile finkoak / Karrerako funtzionarioak	126	133	34	84	162	243	455	1464	810	721	1.587	2645
Estatutupeko aldi baterako langileak	45	48	12	18	28	46	64	244	93	282	242	638
GUZTIZKOA	171	181	46	102	190	289	519	1708	903	1.003	1.829	3.283

Osasun-erakundeetako langile ez-sanitarioak, lan-kontratupeko langileak. 2011

	Goi-mailako		Goi-mailako		Bestelako		GUZTIZKOA	
	titulazioa		titulazioa		titulazioak			
	G	E	G	E	G	E	G	E
Lan-kontratupeko langile finkoak	4	2	6	6	244	423	274	461
Aldi baterako lan-kontratupeko langileak					1		2	
GUZTIZKOA	4	2	6	7	244	424	274	463

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarrila

Langile ez-sanitarioei dagokienez, generoen arteko desoreka osasun-langileena baino txikiagoa den arren, emakumeen ordezkartza guztizkoaren % 64,22koa da. Gehiegizko ordezkartza hori, batez ere, C2 taldeko ordezkartza orekatua ez delako gertatzen da, bertan % 76,70 baitira emakumezkoak.

3.3 ERTZAINITZA.

3.4 4.1 Segurtasun-kidegoetako langileak, taldearen eta sexuaren arabera

Segurtasun-kidegoetako langileak, taldearen eta sexuaren arabera										
ESKALAK	A		B		C		D		GUZTIZKOA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Goi-mailako eskala										
Eskala exekutiboa		127		5					127	5
Inspektoreordetza-eskala					95	1			395	41
Oinarrizko eskala							6.552	820	6.552	827
GUZTIZKOA		127	5		395	41	6.552	820	7074	866

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarrila

Ertzaintzan, emakumeek langile-taldearen % 10,90 osatzen dute; 866 emakume daude 7.940 ertzainen artean.

Ehunekoa hain txikia izateak azalpen historikoa du: lehenengo sustapenean emakumeek debekatuta zeukaten Ertzaintzan sartzea, eta hurrengo sustapenetan emakumeen gehienezko kupoa % 15ekoa izango zela ezarri zen. Sustapen horiek jendetsuenak izan ziren, horietan sartu zen langile kopuru handiena, eta gainera emakumeak garai hartan zuen egoera kontuan hartuta, ulergarria da gaur egungo ehunekoa hain txikia izatea.

Emakumeak kategoria eta eskaletan duen banaketa Oinarrizko eskalan (agenteak) pilatzen da, % 11,12koa dela banaketa. Gaur egun, soilik 5 emakume daude eskala exekutiboan, eta horrek esan nahi du emakumeen ordezkartza % 3,9koa dela. 2012. urtean 4 emakume sartu ziren eskala horretan, eta 26 gizon

3.5 JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA

3.6 5.1. Justizia administrazioko langileak, taldearen eta sexuaren arabera

<i>Justizia administrazioko langileak, taldearen eta sexuaren arabera</i>						
<i>FUNTZIONARIOAK</i>	<i>Titularra / jabea</i>		<i>Bitartekoa</i>		<i>GUZTIZKOA</i>	
	<i>G</i>	<i>E</i>	<i>G</i>	<i>E</i>	<i>G</i>	<i>E</i>
<i>Auzitegiko medikua</i>	15	24	6	7	21	31
<i>Prozesu- eta administrazio-kudeaketa</i>	113	597	53	292	166	889
<i>Prozesu- eta administrazio-izapidetzea</i>	134	372	33	174	167	546
<i>Laguntza judiziala</i>	142	163	30	114	172	277
<i>GUZTIZKOA</i>	404	1156	122	587	526	1743



Justizia administrazioko langileak, taldearen eta sexuaren arabera

LAN-ESPARRUAN		Goi-mailako titulazioa		Goi-mailako titulazioa		Bestelako titulazioak		GUZTIZKOA	
		G	E	G	E	G	E	G	E
Lan-kontratupeko finkoak	langile	3	6	3	5	14	35	20	46
Aldi baterako lan-kontratupeko langileak	lan-	6	16	2	18	9	25	17	59
GUZTIZKOA		9	22	5	23	23	60	37	105

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarrila

2013ko urtarrilean, Justizia Administrazioako funtzionarioak eta lan-kontratupekoak kontuan izanik 2411 langile zeuden, eta horietatik % 76,64 emakumeak dira; argi ikusten da justiziako langileen artean emakumeak direla nagusi.

Prozesu- eta administrazio-kudeaketan desoreka handia dago sexuaren arabera ordezkaritzan, % 76,57 emakumeak baitira.



5. AURREKONTU-PROGRAMEN AZTERKETA

a. Egokitasuna

b. Garrantzia

a. Egokitasuna

Generoaren egokitasunaren bidez, genero-ikuspegiaren arabera landu beharrekoak diren programak identifikatzea ahalbidetzen digu. Hartzaile-talde nagusi gisa pertsona fisiko eta juridikoak, eta gehienetan emakume eta gizonei zuenean edo zeharka eragiten dieten kasuak dituzten jarduketei dagozkien programak, baliabideen sarbidea eta/kontrola errespetatuz.

Hala, egiazta daiteke "neutro"tzat jotzen diren programak generoa alde batera uzten dutela, eta, ondorioz, desberdintasunak sortzen dituela emakume eta gizonen artean.

Horrenbestez, eta politika publikoek genero-neutraltasunik ez duten hipotesia egiaztatzeko, Eusko Jaurlaritzako sail guztiek eta horien baitako erakunde autonomoek detektatu dute generoaren ikuspuntua ezartzea egokia dela 2016 ekitaldiari dagozkion aurrekontu-programetan. Egokitasuna kalkulatzeko, arau teknikoei erantsitako P16 formularioa erabili da. Dokumentu honi erantsi zaio 1. eranskin gisa.

Taula honek jasotzen du egokia dela Eusko Jaurlaritzako sail guztietako nahiz horien mendeko erakunde autonomoetako aurrekontu-programetan generoaren ikuspegia sartzea.



1. taula: Sailei buruzko programen egokitasuna

Saila	Programaren izena	egokitasuna	
		Bai	Ez
Lehendakaritza	1121 Egitura eta laguntza	X	
	1311 Kanpo Harremanak	X	
	1312 Garapenerako lankidetzak	X	
	3221 Emakumeentzako aukera-berdintasuna sustatzea Erakunde autonomoa finantzatzea 3223. Prog.	X	
	4621 Biktimak eta Giza Eskubideak	X	
	5414 Berrikuntza-funtsa	X	
	4622 Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua	X	
Herri Administrazioa eta Justizia	1125- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa.	X	
	1211 - Administrazio Publikoa eta Justiziaren egitura eta babesa	X	
	1213 - Funtzio Publikoa eta Langileen Hautaketa eta Prestakuntza	X	
	1215- Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoa	X	
	1217 - Harreman instituzionalak	X	
	1218- Araubide juridikoa	X	
	1411- Justizia Administrazioa	X	
	1412- Justizia	X	
	4712 - Administrazio Publikoaren Hizkuntza Normalizazioa Beste erakunde autonomo bat finantzatzea. 4714. Prog.	X	
Ekonomia eta Garapen Lehiakortasun Saila	5211 - Informazioaren Gizartearen Euskal Plana	X	
	5411 - Nekazaritza eta Arrantza Ikerketa eta Garapena	X	
	5413 - Teknologia	X	
	7111 - Nekazaritza eta Landa eta Itsas Inguruaren Garapena	X	



	7112 - Arrantza	X	
	7113 - Elikadura Sustapena eta Kalitatea	X	
	7211 - Ekonomia Garapena eta Lehiakortasun egitura eta laguntza	X	
	7212 - Industria Garapena eta Ekintzaileentzako laguntza	X	
	7213 - Industria Segurtasuna		X
	7214 - Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia	X	
	7311 - Energia eta Meatzeen Garapena eta Politika	X	
	7511 - Turismoa	X	
	7612 - Barruko Merkataritza	X	
	7613 - Internazionalizazioa	X	
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila	3111 - Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura eta laguntza	x	
	3112 - Lana	X	
	3121 - Gizarteratzea Erakunde autonomoa finantzatzea 3121. Prog.	X	
	3122 -Immigrazioa	X	
	3123.- Gizarte Zerbitzuak	X	
	3124 - Familia eta Komunitate Politika	X	
	3211 - Enplegua	X	
	3212 - Gizarte Ekonomia	X	
	3231 - Prestakuntza. Erakunde autonomoa finantzatzea 3231. Prog.	X	
	4312 - Etxebizitza	x	
Ogasun eta Finantza Saila	1212 - Zerbitzu orokorrak	x	
	1214 - Informatika eta Telekomunikabideak	X	
	5511 - Estatistika. Erakunde autonomoa finantzatzea 5513 prog.	x	
	6110 - Ogasun eta Finantza Sailaren egitura eta laguntza	x	
	6111 - Ekonomia eta Gastu Publikoa	x	
	6112 - Zerga Politika	x	



	6114 - Ondarea eta Kontratazioa	x	
	6115 - Lehiaren Euskal Agintaritza. Erakunde autonomoa finantzatzea 6115 prog.		x
	6311 - Finantza Politika	X	
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	3222 - Gazteria	X	
	4211 - Hezkuntza Sailaren egitura eta laguntza	X	
	4221- Haur eta Lehen Hezkuntza	x	
